



Nor gara: Sozietate mugatua (S. L.)

Sozietatea bost bazkideek osatzen du eta bakoitzak 600 euro jarriko ditu 3.000 euroko kapitala ezartzeko.

Hauek dira gurekin elkarlanean arituko diren erakundeak:

- **Marino Martínez de Luco kontserbak:** 10 euroko opari-sortak ematen dizkigu. Gainera, kontserba fabrikara bisita egiteko aukera eskainiko da.



- **San Martin baxurako arrantza-ontzia:** Behar diren 3 tripulatzaileekin alokatuko da.



- **Kofradi Zaharra eta Kofradi berria:** Biak bisitatzeko aukera eskainiko da. Kofradi Zaharra, Ondarroako errikin bereizgarrietakoa da. Kofradi berria ezagutu ahal izango dute gure bezeroek. Instalazio honen tamainak adierazten du Ondarroako arrain-merkatua Euskadiko arrain-bolumen handiena duena dela. Baxurako eta alturako arrantza deskargatzen da bertan eta salmenta eta garraio sistema berriak jarri dira martxan, modernizazio eta digitalizazio-maila altuei esker. Solairu nagusia merkaturatzeko lana egiteko, eta kamioiak eta furgonetak kargatzeko erabiltzen da. Eraikuntza berri hori interes turistikoko gune bihur daiteke, egitura, tamaina eta funtzio bereziak baititu.

Kofradi Zaharra



Kofradi Berria



- **Turismo bulegoa:** Turismo bulegoak Ondarroako historiari buruzko hiru gida dira.
- **Joxe Manuel erretegia:** Bisitaren gune nagusia izango da, eta poz-iturri ere izango da plater tipikoak dastatzeko.



- **Unanue Musika-Eskola:** Trikitilari taldeko kideak (6-7 ikasle) kontratatuko ditugu bazkalostean abesti tipikoak jotzeko.



- **Jai-alai autobusak:** Lea Artibaiko bezeroak ekarriko dituzte Ondarroara. Etorbizun hurbilean, turismo-eskaintza herri handiagoetara zabaltzea espero da, hala nola Bilbora eta Donostiara.
- **Ondarroako Udala:** Bertako enpresak garatzeko dirulaguntzen bidez.
- **Bizkaiko Foru Aldundia:** Azaro Fundazioaren bidez, Lea Artibai eskualdea garatzeko.

